

noaua

**Auzoz auzo egingo da
udal aurrekontuen
aurkezpena**

**Azaroaren 21ean,
musika plazara**



**“Euskaraldirako 4 aitzakia”,
ostiral honetan antzerkia Sutegin**



Udal aurrekontuak aurkezteko batzarrak



Parte hartu eta egin zure ekarpena!

Kaxkoan

19

Azaroak

Kaxkoan. Potxoenean
19:00 astelehena

Txokoalde

20

Azaroak

Txokoalde. Erroizpe Elk.
19:00 asteartea

Santuenean

20

Azaroak

Santuenean. Auzo elkarteak
19:00 asteartea

Munalurra

21

Azaroak

Munalurra. Eguzki elkarteak
19:00 asteazkena

Aginaga

21

Azaroak

Aginaga. Ludotekan
19:00 asteazkena

Kalezar

22

Azaroak

Kaxkoan. Haur eskolan
19:00 osteguna

Zubieta

22

Azaroak

Zubieta. Kaxkape
19:00 osteguna



PSU
serigrafia

serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL



NOAOA
BIDAIAK

943 373 613



IRTEERA EKAINEN

LASARTE ORIAK, NOAOAK GIDATUA

info@noaoa.eus

noaoa.eus

Albisteak iruditan

Korrika berri baten lehen pausoa

Apirilaren 4an Garesen abiatu eta 14an Gasteizen amaituko da, egunotan aurkeztu duten 21. Korrika. 11 egunez, Euskal Herria zeharkatuko duen euskararen aldeko lasterketa Zubietan, Usurbil eta Aginagatik igaroko da. Oraindik zehazteke dute noiz, ze ordutan. Momentuz aurreratu dutena da, “Klika” aldarripean bideratuko dela 21. Korrika. “Klika egitea aukera bat hartzea da, euskararen aukera hartzea, hautua egitea”, adierazi dute antolatzaileek. Edizio honetan, Jose Luis Alvarez Enparantza “Txillardegi” omenduko dute, “egundoko lana egin zuelako, eta euskaldunon historian egin den gauzarik inportanteena ziur aski Txillardegiri zor diogulako”. 50 urte bete dituen euskara batua.

21. Korrika laguntzeko arropa laster eskuragarri izango da; Usurbilen, Etumeta AEK euskaltegian. Badira Korrika lagun-



Azaroaren 29an XXI. Korrikaren abestia eta bideoklipa aurkeztuko dituzte.

tzeko bide gehiago ere. Korrika Laguntzaile izan gaitezke. 12 euroren truke, pina eta hainbat deskontuz baliatzea ahalbidetuko duen abantailadun txartela jaso ahalko ditugu. Ekimenotatik jaso-

tako laguntza, Euskal Herriko gau-eskola eta euskaltegiak laguntzera bideratuko da. Azaroaren 29an 21. Korrikaren abestia eta bideoklipa aurkeztuko dituzte.

Informazio gehiago: korrika.eus

Laburrean

Errigoraren kutxen banaketa

Azaroaren 29tik abenduaren 4ra, tarte horretan jasoko ditugu kutxak NOAUA!n. Jasotakoan eskatzaileekin hartuemanetan jarriko gara. Produktuon bila zatoztenean egin beharko dituzue ordainketak.

1952an jaiotakoen bazkaria, abenduaren 2an

Abenduaren 2an bilduko dira bazkaritarako Antxeta jatetxean, 14:00etan. Izen emateko deitu azaroaren 24a baino lehen, 620 516 715 telefono zenbakira (Javier).

Gripearen aurkako txertoa jartzeko garaia da

Abenduaren 5era arte iraungo du kanpainak. Txertatu aurretik, hitzordua eskatu ambulatorioan bertan edo osasun etxera deituta. Hemen telefono zenbakia: 943361543.

noaUA

Kultur Elkarteak

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkartea@noaUA.eus // www.noaUA.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubieda.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaUA.eus
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzioa@noaUA.eus:
Imanol Ubieda, Aritz Lasarte.
Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon Galbete.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietan, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldia,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua.



Urdulaga Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herria!



Imanol Ubeda

Urrats garrantzitsu baten atarian

Guk ez dugu IBEX35ean kotizatzen duen enpresa bat atzetik. Ez gara lobby ekonomiko baten agerikari. Eta hona ez da sekula dirudun mezenasik hurbildu.

NOAUA! eta antzeko hedabide ia guztiak herri ekimenaren fruitu gara. Iraunbizitzaren logikatik abiatu ginen aspaldian. Ez zegoen besterik. Eta horrela egin dugu orain arteko bidea. Apalharro.

Herri ekimeneko euskal hedabideok urte asko darabagu euskararen normalizazioari, euskal komunikazio sistemari ekarpena egiten. HEKIMEN euskal hedabideen elkartearen hitzak dira horiek. Eta baita ondoko hauek ere: “bete izan dugun eta

egun betetzen dugun funtzio soziala garrantzitsua da”.

Funtzio sozialarekin zerikusia du Euskaraldiak. Pil-pilean da egunotan. Jende bat bero-bero ikusten dut. Primeran. Luzarorako izan bedi. Baina ekimen puntualak haratago, oinarri sendoak ziurtatu beharra daude. Besteak beste, hurrengo kanpainen ere bozgorailu egokiak izan ditzaten. Zeren gure moduko hedabideok ez baitugu IBEX35ean kotizatzen duen Amancio Ortega bat aldamenen. Ez dugu apostu etxeen babesik soinean. Eta eskerrak! Baina gauzak diren bezala, gure oinarriak ahulak dira. Iraunbizitzeko logikari men eginda bizi garelako oraindik. Urtez urteko aurrekontuen arabera funtzionatzen dugu,

bestela esanda. Usurbilgo Udaren ekarpena egonkorra bada ere, Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzak ez dira beti berberak izan eta gorabehera ugari ezagutu ditugu. Eta horrela zaila da epe luzeko egitasmo bati oinarri sendoak ipintzea.

Egoera horri irtenbidea bilatu asmoz, sektorearen beharretan oinarritutako dirulaguntza eredu berria eraikitzeke lanean aritu dira instituzioak eta euskarazko hedabideen ordezkariak. Administrazio desberdinek (EAEko hiru Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritza) sektorearen zenbait eskari historiko aintzat hartu eta eskari horietako batzuei erantzungo dien eredu berria osatzeko lehen pausoak eman dituzte.

Hasi dira, beraz, herri hedabideok egindako lanaren eta sektorearen beraren izaera estrategikoa aitortzen; euskal hedabideen sistema babesteko eta duintzeko beharra kontuan hartzen (lanpostuak eta soldatak duindu ahal ditzagun); hedabideon irismenenean ez ezik kostuen arabera irizpideetan erreparatzen...

Eskertzekoa da Bingen Zupiria Hizkuntza Politikako sailburuak eta arlo bereko Foru Aldundietako ordezkariak egin duten ahalegina. Dirulaguntza sistema berriak doinu polita duela dirudi. Partitura egokian idatzi eta 2019ko aurrekontuetan onartzea baino ez da falta. Urrats garrantzitsua litzateke.

Maialen Unanue | Garazi Lizaso Manterola | Aritz Gorriti | **Imanol Ubeda** | Luis Aranalde | Luken Arkarazo

Feminismotik eredu Matrilinealera

Zalantzarik gabe, borroka feminista deitzen dugun gizarte mugimenduari garrantzia izugarria da. Hala ere, artikulu honetan hipotesi bat bota nahi dut: feminismotzat hartzen den hori agian gure kultur eredu Matrilineala bera da edo berarekin oso lotuta egon daiteke, gure historian ezkutatu zaigun kultur eredu hain zuzen ere.

Argi eta garbi dago patriarkatuak gaitzak eta patologiak etengabe sortzen dituela: emakumeekiko bortizkeriak, gerrak... Bortizkeria horrek, logikoa denez, amorrutza sortarazi du emakumeengan, gazteengan batez ere, mendeetan zehar metatutako bazterkeria eta zapalketa neurrigabekoak izan direlako. Baina, amorrutza hori norantz zuzendu behar da? Gizonengana, kontrako generoarengana alegia, ala kultur

eredu patriarkalarengana?

Amorrutza gizonengana zuzentzen bada, Euskal Herriarako ondorio larriak ekarriko lituzke, oraingo egoera demografikoa hil ala bizikoa delako. Haurrik ekarri ezean, euskera ez da transmitituko, eta ondorioz, Euskal Herria desagertuko da, euskal erloju demografikoa gure kontra doalako.

Gure kultur eredu Matrilinealean emakumeen eta gizonen arteko elkarbizitza eta harremana berdintasunaren gainean eraikita daude. Gaur egun, kosta egiten da genero bortizkerian euskaldunak aurkitzea. Egia da matxismoa asko sartu dela eta sartzen ari dela euskal munduan, kolonizazio estrategiaren osagai bat gehiago delako.

Euskeraren bidez adierazten den gure kultur eredu Matrilinealean, gizon euskaldunak ez du sentitzen, kontzienteki ezta

inskonstzienteki ere, emakumea bere jabetzakoa dela. Euskerak “hezi” du emakumeekiko berdintasun eta errespetuen balioetan, naturarekiko balioetan, gainerako gizakiak ez zapaltzean, beste lurralde bat ez inbaditzean...

Euskerak, mendeetan zehar, ezkutu gisa funtzionatu izan du (nahiz eta arrakala oso handiak dituen gaur egun) eta ez du utzi kultur eredu patriarkala gizonengan barruraino sartzen, ezta emakumeengan ere ez, euskaldunak izan diren bitartean.

Kultur eredu Matrilinealaren muina beti izan da, eta orain ere bada, norbera eta kolektiboak burujabe gisa bizitzeko ahalegina egitea. Eta garai hartan gure herrian Erakunde Propioak eratzeke balio izan zuen, lan aske eta kooperatiboa Auzolanaren bidez egiteko. Balio izan zuen erabaki publikoak erabat de-

mokratikoki hartzeko, Batzarre moduko egituren bidez. Balio izan zuen garapen ekonomikorako Komunala moduko ereduak eratzeke eta Ohituretan eta goikoen aginduetan oinarritutako Zuzenbide Piriniarra sortzeko.

Gure Kultur eredu Matrilineala XXI. mendean berreskuratzea eta egokitzea ez litzateke iraganeke kontu zaharretako bat izan behar, gure etorkizuna eraikitzeke iparorratza baizik, batez ere une honetan bizitzen ari garen Garai Aldaketa sakonagatik.

Euskerak, belaunaldiz belaunaldi, kultur eredu Matrilineala eraman izan du norberaren eta kolektiboaren inkontzientean. Eta horrez gain, bere baitan, balioen altxor bat, oinarri etiko garrantzitsuak eta Ama Lurra moduko mundu ikuskera transmititu ditu, hau da, Euskal Sena.

Gabriel Valin

Azaroaren 21ean, musika plazara

Euskal Herriko musika eskolen deialdiarekin bat eginez, aurren ere Zumartekoak kalejiran irten-go dira lehenik eta Sutegin ikusi eta entzun ahaliko ditugu gero, haien egunean, Santa Zezili egunez. Musikarien egunean, Musikalean datorren asteazkenean!

Azaroak 21, asteazkena

Santa Zezilia Eguna:

"Musikalean"

■ 18:00 Kalejira: Trikitixa-pan-dero taldea, Musika Txokoko eta abesbatzako ikasleekin lagunduta eta Txaranga.

■ 19:00 Sutegin: Musika Eskolako talde instrumentalaren kontzertua.

■ Sarrera: doan.

■ Antolatzailea: Zumarte Musika Eskola.



Kalejiran ibiliko dira lehenbizi. Ondoren, talde instrumentalek kontzertua eskainiko dute Sutegin.

Santueneko 15. Argazki Lehiaketa martxan da

Abian da Santuenea Kultur Elkartaren 15. Argazki Lehiaketa. Ekimena haur eta gaztetxoek, 0-3, 4-7 eta 7-16 urte artekoek zuzendua dago. Hortxe atera behar-reko argazkien gaia: "Neguko irudiak".

Argazkiak azaroaren 15etik 30era aurkeztu behar dira Santuenea Kultur Elkarteko egoitzan. Segidan dituzue antolakuntzak helaraziko lehiaketako oinarrien berri. Santuenea Kultur Elkarteko egoitzan jaso ahal izango da informazio gehiago.

razitako lehiaketako oinarrien berri. Santuenea Kultur Elkarteko egoitzan jaso ahal izango da informazio gehiago.

XV. Argazki Lehiaketa, oinarriak

1.- Argazki lehiaketaren lema: "Neguko irudiak".

2.- Lehiaketa honetan edozeinek har lezake parte, 16 urte bete arte.

3.- Izen ematea azaroaren 15ean hasi eta azaroaren 30era

arte egin daiteke Ludotekan.

4.- Argazki bakarra aurkeztuko da eta tamaina normalekoa izango da, bertikala edo horizontala.

5.- Lehiaketako epaimahaia udaletxeko Kultur Teknikariak eta Ludotekako Juntako ordezkariak osatuko dute.

6.- Aurkeztutako argazkiak hiru kategoriatan sailkatuko dira: 4-8 bitartekoak, 9-11 bitartekoak eta 12-16 bitartekoak

eta lehiaketa epaileak ere hiru balorazio egingo ditu.

7.- Adin tarte bakoitzeko argazki bat aurkeztuko da eta bakoitza 50x50 formatuan handituko du elkarteak. Handituriko argazki horiek prentsan argitaratuko dira.

8.- Argazki hauek aurkezteko azken eguna: abenduak 20, 19:00etan Ludotekan.

Antolatzailea: Santuenea Kultur Elkartea.

ARRANDEGIA
PELLO
 ORDUTEGI BERRIA:
 ASTELEHENETIK-LARUNBATERA
 9:00-13:30
 ASTEARTE-ASTEAZKEN-OSTEGUNA
 17:00-19:30
 PUNTAPAX 7, 943 54 37 94


 Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
 ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
 EKAITZ GARMENDIA MERINO
 Kale Nagusia 10, 1.C4
 Tlf 943 37 08 78
 20170
 USURBIL

41 lan kontratu gauzatzeko Beterri-Buruntzako udalen deialdia

Eskualdeko langabetuen kontratazioa sustatzeko, azken finean langabetuen lan egoera hobetzeko proiektu desberdinak kudeatuko dituzte Beterri-Buruntzako udalek; hau da, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgoek. Eskualdeko enpresek 19 langabetu kontratatuko diru-laguntza deialdia plazaratu dute. Enpresen kontratazio hauetan, emakumeak edo gizarte-bazterketa arriskuan diren kolektiboak lehenetsiko dituzte.

Abenduaren 31 baino lehen, 22 langabetu kontratatuko dituzte bestalde eskualdeko udalek, proiektu desberdinak burutzeko. Kontratazio hauek Lanbidek kudeatuko ditu. Lan eskaintzotan, lanbide.eus atarira sartuta eman beharko da izena. “Udaletxeetako proiektuak garatzeko, perfil teknikoa duten eskualdeko gazte langabetuak kontratatuko dira, batetik, eta perfil teknikoa ez dutenak bestetik, udaletxeetako brigadetan arituko dira”. Kontratu bakoitzaren iraupena “proiektuaren arabera izango da, baina kontratuak lanaldi osoan 5 hilabeteko batz besteko iraupena izango dute”. Udalaren kontratazio hauei buruzko xehetasunak dituzue segidan:



Udaletxeetako proiektuak garatzeko, perfil teknikoa duten eskualdeko gazte langabetuak kontratatuko dira. Perfil teknikoa ez dutenak bestetik, udaletxeetako brigadetan arituko dira.

IRAUPENAK

“Kontratuak lanaldi osoan 5 hilabeteko batz besteko iraupena izango dute”

Eskualdeko gazte langabetuak eta emakumezkoak lehenetsiko dituzten 7 kontratu:

■ Eskualdeko Guztion proiektuak.

2. Aparejadore kontratatuko dira.

■ Kontratazioarako diru-laguntzen dinamizatzailer bat.

■ Marketing komertzialerako kudeatzailea.

■ Laneratze enpresa baten inguruko bideragarritasuna plana egiteko teknikaria.

■ Maskoten kontzientziakzio kanpaina burutuko duen teknikaria.

■ Inertzio soziolaboraleko teknikaria.

Lan munduratzeko zailtasunak dituzten taldeak lehenetsiko dituzten 15 kontratu:

(Iraupen luzeko langabetuak, 55 urtetik gorakoak edota DBEren hartzaile edo onuradunak)

■ 1go mailako ofiziala (Margolari edo igeltsero): Denera 5 pertsona.

■ 2. mailako ofiziala (Igeltseroa): Denera 2 pertsona.

■ 8 peoi (Brigada).

Enpresetan langabetuen kontratazioak sustatzeko diru-laguntzak

Beterri-Buruntzako udalek (tartean Usurbilgoak), Lanbide eskatzaile gisa izena emanda dauden langabetuen kontratazioa errazteko diru-laguntza deialdia plazaratu dute eskualdeko enpre-

sentzat. Guztira, 123.000 euro bideratuko dute laguntzotara. Deialdi honetara aurkeztu ahaliko dira, ekainaren 21az geroztik eta 2019ko ekainaren 30a baino lehen hitzartu diren kontratuak.

Kontratuak lan egun osoak izan beharko dute, 3-6 hilabete artekoak. Eskabideak dokumentazioarekin batera Andoaingo Udalaren Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta Gazteria lantzaileko Erre-

gistroan bideratu ahaliko dira. Helbide honetan: La Salle etorbidea, 6, Urigain Etxea. 20140 Andoain.

Informazio gehiagorako: usurbil.eus / 943 371 951.

Udal aurrekontuen aurkezpena auzoz auzo

2019ra begira da jada Usurbilgo Udala. Udal-batzak gehiengo osoz onartu zituen urriko plenoan urte berrirako zerga ordenantzak. Hurrengo urratsa, udal aurrekontuak onartzea izango da. Udaletik berri eman dutenez, aurrekontuon zirriborroa lantzen ari da udal-gobernua. Guztira, iaz baino 700.000 euro gehiago, 12 milioi euro izango ditu herri honek, bideratu nahi dituen egitasmoetarako.

“2019ko aurrekontu-proposamenak ere gobernu-programa du oinarri, eta urteotan landu diren arloz arloko plangintzetan jaso diren egitasmoei emango zaie lehentasuna”, Udaletik ohartarazi dutenez. Udalarentzat nabarmentzekoen artean, dira “Kale Irekiak mugikortasun-plana, Errioa Bizi! ekintza-plana, Usurbil 0.0 hondakinen programa, jubilatuen bizitza aktiborako egitasmoak, Parekidetasun Plana...”.

Udala lantzen ari den aurrekontuon zirriborroa ekarpenez hornitu nahi dute orain. Parte hartzea lehenetsi nahi dute, “gobernu-taldearen iritziz, herritarren eta oposizioaren hitza kontuan hartu ezean, ezin baita aurrekontu egokirik taxutu”.

Ogasun Batzordean oposizioarekin batera landuko dituzte udal aurrekontuok. Herriar eta eragileekin, azaroaren 19tik 22ra auzoka deitu duten bilera errondan. “Aurrekontuez ez ezik, bestelako kontuez ere



Ogasun Batzordean, oposizioarekin batera landuko dituzte udal aurrekontu berriak. Herritarrekin, auzoz auzoko bileretan.

EKARPENEN ZAIN

Udala lantzen ari den aurrekontuon zirriborroa ekarpenez hornitu nahi dute orain.

Parte hartzea lehenetsi nahi dute,

“gobernu-taldearen iritziz, herritarren eta oposizioaren hitza kontuan hartu ezean, ezin baita aurrekontu egokirik taxutu”

hitz egiteko baliatu nahi dira bilerok. Parte hartu eta egin zure ekarpena!”, luzatu du gonbita udal gobernu taldeak.

Aurrekontuon aurkezpena

■ Azaroak 19, astelehena: udal aurrekontu zirriborroaren aurkezpena Ogasun Batzordean

oposiziko taldeei. Ekarpinak egiteko 10 eguneko tarte izango dute gero.

■ Azaroak 19, astelehena: 19:00 Aurkezpena Kaxkoan, Potxoenean.

■ Azaroak 20, asteartea: 19:00 Aurkezpenak Txokoaldeko Erroizpe elkartean eta Santueña Auzo Elkartean.

■ Azaroak 21, asteazkena: 19:00 Aurkezpenak Munalurrako Eguzki elkartean eta Aginagako ludotekan.

■ Azaroak 22, osteguna: 19:00 Aurkezpenak Kalezarko Haur Eskolan eta Zubietako Kaxkapen.

■ Azaroak 28, asteazkena: oposizioko taldeen ekarpenak aztertze Ogasun Batzordearen bilera.

■ Abenduak 20, osteguna: 2019rako udal aurrekontuak hasieraz onartzeko udalbatza- ren ezohiko osoko bilkura.

GuraSOS-en babes kutxak saltokietan jarri dira salgai

Urriaren 7an GuraSOSek haur eta gaztetxoekin batera apaindu zituen babes kutxak 10 eurotan jarri dira salgai. Usurbilen saltokiotan eskura ditzakezue: Lizardi, Laurok, Otargoxo, Kaffa, Txalaka, Iturralde botika, Alkartasuna, Iratze naturdenda, Ines eta Intza ileapaindegietan.

Babes kutxak salgai non dauden jakiteko informazio guztia gurasos.org atarian jasoko duzue. Salmenta puntuen zerrendara batu nahi duen edonork idatzi dezala email bat komunikazioa@gurasos.org helbidera. Email-ean saltokiaren izena, herria, helbidea, e-posta helbidea eta telefono zenbakia zehaztu.

69.119 haur eta gazte babesteko

Kutxen salmentarekin lortutakoa Hitzartu herritarren parte hartze prozesuaren gastuak ordaintzera bideratuko da. “69.119 haur/gazte, ikasle gipuzkoarrak, gure laguntza beharrean daude”, ohartarazi du GuraSOS-ek.

Ucinen isurketak salatzeko deialdia, atzeratua

Ostegun honetarako (azaroak 15) Mikel Laboa plazan egitekoa zen elkarretaratze informatiboa atzeratzea erabaki dute deitzaileek. Hitzordu horretan, Anerreka Ingurumen Elkarteko ki-deak afera honen inguruko informazioa eskaintzekoak ziren. Baina deitzaileek ohartarazi dutenez, “egoerari buruz informazioa eskuratzeko denbora gehiago behar dugulako” mobilizazioa atzeratu egingo dute.

2019rako zerga-ordenantzak, alegazio epean

Urriaren 30eko udalbatza- ren osoko bilkuran hasieraz onarturiko 2019rako zerga-ordenantzei erreklamazioak aurkezteko 30 eguneko epea zabalik da azaroaren 7az ge-

roztik. Erreklamaziorik ez bada aurkezten, automatikoki behin betiko onartutzat joko dira. Bestela, “Udal Korporazioak behar diren behin betiko erabakiak hartuko ditu, aur-

keztu izan diren erreklamazioak ebatzi eta Ordenantzaren behin betiko idazketa, beraren indargabetzea edota, behin behineko akordioan aipatutako aldarazpenak onetsiz”.

“Erraustegiari buruzko eztabaida tekniko bat eskatzen jarraitzen dugu”

Zubietako erraustegia izan zuten hizpide aurkezteko asteko ETB-ko “Katebegia” saioan. Erraustegia defendatzen dutenen eta aurkako zenbait ahots bildu zituen ordubeteko dokumentalak.

Tartean, Erraustegiaren Aurkako Mugimenduko ordezkari batek ere parte zuen dokumentalean. European nahiz munduan hainbat tokitan erraustegiak ixten eta debekatzen ari direla ohartaraziz, zentzugabekeriatzat jo zuen Zubietan erraustegia eraikitzea, erraustegia geratzeko hamaika arrazoi daudela argudiatuz. Tartean, martxan direla Gipuzkoan gaikako bilketa %70etik gora igoarazi duten alternatiba merkeago eta osasuntsuagoak.

“Ez dago besterik”

“Lasai egon gaitezke”, zioen Gipuzkoako Foru Aldundiko ingurumen diputatu Jose Ig-



Erraustegia 2019. urte amaierarako martxan egotea aurreikusten du Jose Ignacio Asensio Gipuzkoako Foru Aldundiko ingurumen diputatuak.

EZTABAIDA TELEBISTAN

“Eskaera honekin bat egiten zuten 10.000 herritarren sinadurak entregatu ziren Euskal Telebistan”

nacio Asensiok Zubietan egiten ari diren obren eremutik bertatik, ETB-ko kameren aurrean. Hondakinak erraustea defendatu zuen energia iturri gisa. Zubietan Europako herri

aurreratuenek erabiltzen duten punta puntako teknologia baliatuko dutela zioen, European hainbat erraustegi eraiki dituen enpresa bateko ordezkariak zioen moduan.

Erraustegia 2019. urte amaierarako martxan egotea aurreikusten du Asensiok, eta Zubietan gainean kokatuko diren azpiegiturekin “uste dut konponduta izango direla gure arazoak”, hondakinak Zabalgarbira garraiatzen segi beha-

rrik izan gabe. Eta horrekin, “gure ametsgaiztoen amaiera, gipuzkoarren arteko talka amaituko da”. Etorkizunera begira, egun %53an dagoen Gipuzkoako hondakin gaikako bilketa %70era igoaraztea dute helburu. Gainerako %30a kudeatzeko erraustegiaren beharra defendatzen du ingurumen diputatuak. “Ez dago besterik”, bestela, “zabortegiak ireki behar” zirela eta hori litzatekeela erabaki txarrena.

Modu honetan, bere ustez Gipuzkoak duen egoera okerreri irtenbidea aurkitu diote, hondakinak kudeatzeko azpiegitura ezari alegia. Eraikitzen ari diren erraustegia geratzeko herri mugimendu anitz eta milaka herritarren eskakizunari dagokionez zioen, errespetatzen dituen arren, “geroz eta gutxiago dira. Oso mugimendu txikia da. Gehiengoaren iritzia errespetatu behar da”, 2015eko hauteskundeetako emaitzei erreferentzia eginez.

“Berriro berdina egingo nuke”

Berriki, Espainiako Kontu Auzitegiak egungo GHK-ko EAJ eta PSE-ko agintariak salaturiko EHBilduko ordezkari Ainhoa Intxaurrendieta eta Iñaki Errazkin errugabetu izanaren harira Asensiok onartzen zuenez, “pixka bat harritu digu nolako argudioak erabiltzen diren”. Gogoan izan, helegitea aurkeztuko dio GHK-k aipatu epai honi.

Berriki 2013ko azaroan, erraustegia geratzeagatik errugabetu zituen garai hartako Gipuzkoako Hondakin Kontsortzioko lehendakari Ainhoa Intxaurrendieta eta Foru Aldundiko ingurumen diputatu ohi Iñaki Erraz-

kin ere elkarriketatu zituen saioak. Duela bost urte erraustegia geratzeko erabakia hartu izanagatik 46 milioi euro ordaintzea eskatu diete GHK-ren EAJ eta PSE-ko agintariak. Epailak arrazoia eman die. “Ez zen espero genuena”, zioen Intxaurrendietak. Justiziarengan ez zutela esperantzarik, eta ezustean jaso dutela aldeko epaia.

Baina denboran atzera egin da, argi dio Intxaurrendietak. “Berriro berdina egingo nuke”. Gaineratzen zuenez, “Gipuzkoarren interesak defendatu genituen” eta orain, “botereak larrutik ordainarazi nahi digu”.

Errazkinek Asensioren hitzak ukatu zituen. Erraustegia geratu ostean, alternatiba aurkeztu zutela gogorarazi zuen; Gipuzkoan utziak zeuden harrobiak berrerabili eta azpiegitura deszentralizatuen alde eginiko apustua oroitarazi zuen.

Erraustegia eraikia eta martxan ikusiko ote dugun galdetuta, Errazkinek “arriskatu egingo gara?” galdetzen zuen. 10-15 urte igarota, erraustegiaren kalteen eragina nabarmentzen hastean, “atzera bueltarik ez denean, zer esango dugu?” galdetzen zuen.

Erraustegiaren etorkizunaz galdetuta, Intxaurrendietak

argi zioen. “Batek daki. Hauteskunde batzuk daude aurretik”. Etorkizuna, herritarren erabakiaren esku egongo dela gogorarazi zuen.

Eztabaida eske

Gipuzkoa Zutik mugimendutik ETB-k erraustegiari buruzko dokumentala eskaini arren, “erraustegiari buruzko eztabaida tekniko bat eskatzen jarraitzen dugu” gogorarazi du sare sozialen bidez. Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak eskaera honekin bat egiten zuten 10.000 herritarren sinadurak entregatu zizkiola Euskal Telebistari, gogorarazi dute.

OEIT-k Asensiok dimititzea eskatu du

Zeresana eman du Euskal Telebistak Zubietako Erraustegiari buruz aurreko astean plazaratu zuen erreportajeak. Erraustegiaren aldeko eta kontrakoan aholtsak bildu zituen ikus-entzunezkoan.

Besteak beste, Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeak parte hartu zuen. Nazioarteko zientzialariek kaleratu izan dituzten ikerlanetan oinarrituta, erraustegiak hilkortasun eta minbizia tasa areagotzen duela ohartarazi zuten. Alegia, nahikoa ebidentzia badela errausketak osasuna kaltetzen duela. Biodonostiako kide batek ere parte hartu zuen, “ez gara nahikoa ebidentzia izatera heldu” zioen. Baina ezetza ere frogatu ezinik direla, eta honenbestez, “onartu egiten da zalantza”, hala esan zuen Biodonostiako kide eta berriki, Osasun Saileko Osasun Publikoko zuzendari izendatu berri duten Juan Jose Aurrekoetxeak. Foru Aldundiko ingurumen diputatu Jose Ignacio Asensiok ere parte hartu zuen.

“Gure taldearen kontrako deskalkifikazioak direla eta” oharra plazaratu du, 2002. urteaz geroztik hondakinak erraustearen eta osasunaren artean dagoen hartuemanaz informatu gaituen medikuek osaturiko Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeak (OEIT).



Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeko (OEIT) hiru kide Potxoenean. Artxiboko irudia.

Asensioaren dimisioa eskatu dute egunotan kaleratu duten zazpi puntuko adierazpenean eta dimititzen ez badu, sina dezala erraustegiak herritarren osasuna kaltetuko ez duela bermatuko duen dokumentua.

Begirune falta, irain eta errespetu faltan salaketa

Haserre agertu dira. “Inoiz ez dugu inor iraindu, engainatu edo izena belztu. Guk berriz, askotariko irainak, zakarkeriak, arbuioak eta errespetu faltak pairatu ditugu, bakarrik kalitate irizpide kontrastatuak betetzen dituzten ikerketak mahaigaineratzeagatik”, adierazi dute.

Argi utzi nahi dute beste behin, mediku taldea dela OEIT, ez zientzialariena. Baina zientzialariek landutako ikerketak direla plazaratu izan dituztenak. Taldeko kideetako batek ETB-ren joan den asteko dokumentalean egin bezala, “guk emaitza zientifikoak ma-

haigaineratzen ditugu besterik gabe, Asensio jaunak behin eta berriz ezkututzen dituen emaitzak”.

Gizarteari plazaratu bezala, eskuartean duten informazioa agintariei helarazteko asmoa izan dute beti, “Asensio jaunak peskizan ditu guk aurkeztutako ikerketen egileak” eta “aukera du nahi izanez gero haiei galdetu eta gonbidatzeko” OEIT-tik gogorarazi dutenez.

Erantzunik ez dute jaso

Baina ekimen eta informazio hedapen honen guztiaren aurrean, ez dute erantzunik jaso. Antolatu izan dituzten mahai inguruetara erraustearen aldekoak ere ez direla agertu izan gogorarazten dute. “Berak (Asensiori buruz ari dira) ez al du inoiz jakin nahi gure datuek islatzen duten errealitatea? Begirune falta hau, gure taldeari baino gehiago, osasunagatik kezkatutako gizarteari egiten zaio”.

Dimisioa edo agiria

Ohar bidez adierazi dutenez, beste behin, eskuartean dituzten ikerketak Aldundiko ingurumen diputatuaren esku jarriko lituzketela diote “bere konfiantzako sendagileek miatzeko, baina aurrekari tristeak direla eta, gizartearen adimenari egindako laidoak eta GEIS/OEIT-i jaurtitako kalumniak, bere dimisioa es-

katu besterik ez zaigu gelditzen, bidea emateko gizarte bizidun baten kideen ekarpenak aintzat hartzen dituen beste norbaiti, guztion onerako. Bestela exijitzen diogu agiri bat sinatzeko, non bermatzen duena erraustegiak ez duela kalterik ekarriko ondoko biztanleen osasunari, eta azaltzeko zergatik biztanle horiek behar duten

jarraipen medikoa”.

Daukagun panoramaren aurrean, “denon ongizate horrengatik, eta dauzkagun ebidentziengatik, berriz ardura edo prekaizio printzipioa gogora ekartzen dugu, eta gure arduradunei hondakinen kudeaketa seguruagoa eta osasungarriagoa eskatzen diegu”.

Tailerra, guraso eta seme-alaben arteko komunikazioaz

Azaroaren 17an, 10:00-12:00 artean Potxoenean, Usurbilgo Udalak antolatuta. Gaztelekuko hezitzaileek bideratuko duten saioa, 12-18 urte arteko nerabeen gurasoei zuzendua dago. Izena azaroaren 9a baino lehen eman behar zen.

Berdintasun ipuinak Aginagan

Antxomolantxa Elkarateak antolatuta, azaroaren 17an, 17:30ean hasita Aginagako ludotekan. 4-10 urte arteko haurrei zuzenduriko hitzorduan “denak errespetatuz bizi ahal izateko bidaia-tuko dugu ipuin zoragarrien munduan, bakean eta berdintasunean bizi ahal izateko”. Ekitaldirako sarrera doakoa izango da.

Gurasoentzat bi hitzaldi, Hitz Ahoren eskutik

LH 2, 3 eta 4. mailako gurasoentzat:

Ume eta haurren elikaduraren eguneroko zalantzen inguruko hitzaldia antolatu dute. “Prestatu zuen galderak!”.

■ Hizlaria: Alazne Agirrezabalaga.

■ Azaroak 27 asteartea.

■ 17:00etan, Ikastola gorrian.

LH 5, 6 eta DBH mailako gurasoentzat:

Gazteen elikadura gurasoen esku egoteari uzten dion garaian, zer egin dezakegu euren etorkizunerako elikadura babesteko?

■ Hizlaria: Alazne Agirrezabalaga. Dietista-nutrizionista

■ Azaroak 28 asteazkena.

■ 17:00etan, Ikastola gorrian.

Usurbilgo kultur altxorretan barrena bidaia interesgarria

Egunerokoan zeharkatzen ditugu herriko hainbat txoko, txokooz gozatze-ko astirik hartu gabe, erreparatu gabe. Baina ez dugu ahaztu behar, kultur altxorrez josia dugu Usurbil, eta horiek bistartzen dabil Usurbilgo Udal- la, tarteka antolatu ohi dituen Harria Hitz bisita gidatuekin. NOAUA!ren Kulturaldiaren baitan azaroaren 11n ospatu zen ekimen honen edizio berri bat.

Usurbildik nahiz herritik kanpotik etorritako bisitari taldeak gogotik gozatu zuen hitzorduaz. 60ko hamarkadan Euskal Herrian gertatu zen kultura-eztandara bidaiatu ahal izan zuten. Udarregiren omenez frontoi atzean dagoen Remigio Mendibururen eskultura, Zumetaren murala eta aurrez aurre duen Mikel Laboaren omenezko plaza eta eskultura, 2009an poliziak ezabaturiko Alejandro Tapia aginagarraren horma irudia, Askatasuna plaza, Gotzon Huegunen sagardoaren omenezko eskultura... Sortze lan guztiok ikusi eta haien atzean dagoen historia



Larunbatean Harria Hitz ibilbidea osatu zutenek Zumeta Arte Estudioa bisitatzeko aukera izan zuten.

'HARRIA HITZ' IBILBIDEA

"Goiza borobiltzeko, Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen eskutik mokadutxo ederra dastatu zuten, bertako sagardoz bustia"

plazaratu zuten.

Usurbilgo erdigunetik, azken urteotan zabaldu diren sor-

kuntzaren beste bi gune bisitatzera joan ziren gero. Zumeta Arte Estudioa lehenik. Usoa Zumetaren eskutik, estudioa barrutik ezagutu, bertan burutzen duten lan prozesuaren azalpenak jaso eta Monika Zumetak eta Enara Goikoetxeak grabaturiko "Izenik gabe 200 x 133" Jose Luis Zumetaren sortze lan prozesua erakusten duen dokumentala ikusi ahal izan zuten.

Handik Txokoaldeko tren geltoki zaharrean kokaturiko Txalaparta Txokora jo zuten gero. Oreka Tx taldeko kide Harkaitz Martinez de San Vicenseren eskutik, txalapartaren doinu eta erritmoetan trebatu ziren.

Goiza borobiltzeko, Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen eskutik, mokadutxo ederra dastatu zuten, bertako sagardoz bustia.

'Galerak', bizipen bati lotutako hitzak eta melodiak



Alex Tello izan da 'Galerak' ikuskizunaren bultzatzailea. Aurreko larunbatean, artista ugari igo ziren Sutegiko ohol-tza gainera.



"Udako olatuaren eran etorri zinen. Oroitzen dut nola elkar ezagutu genuen taberna hartan, Zarautzen. Eta udazkenaren ata-

rian, igande bare batean, zure poema baten kantua erakutsi zenidan". Horrela abiatzen da Galerak, kultur espresio ezberdi-

nen erakusgarri den ikuskizuna. Ezohikoa da proposamena, pop-rock eszenako nahiz mundu klasikoko musikariek bat egin du-

telako ohol-tza gainean. Sutegin entzun genituen kantuek disko batean jasoko dira. Datorren urtean emango da argitara.

Fermin Muguruza: “Gaur egun arrazakeria nonahi dugu eta gorantz doa”

Arrakasta itzela izan zuen igandean, NOAUA!ren Kulturaldiaren baitan proiektatu genuen “Black is beltza” animaziozko filmak. Haren zuzendari Fermin Muguruza gonbidatu zuen kultur elkarte honek ekitaldi hasierara, eta goraino bete zuen Sutegiko auditorioa.

Filmaz eta bere ibilbideaz mintzatu zen Muguruza. 1965eko urrian girotua dago “Black is beltza”. New Yorkeko Bosgarren Hiribidean desfilatzeke gonbita jaso zuen urte hartan Iruñeko San Ferminetako erraldoien konpartsak. Ezin izan zuten ordea denek desfilatatu. Agintari ipar-amerikarrek debekatu egin zieten erraldoi beltzei parte hartzea. Benetako gertaera horretatik abiatzen da Muguruzaren animaziozko filma.

“Hemen laburbiltzen dira gauza pilo bat; euskaldunok non gauden munduan, pairatu dugun zentsura. Aldi berean, nola errebindikatzen dugun dantza egitea eta komunitate bezala elkarrekin parte hartzea dantza horretan. Bat batean dena geneukan; zentsura, arrazakeria, dantza bat egiteko eta kantatzen duen herri bat ez dela inoiz hilko esateko gogo”, zioen Ferminnek proiektzioaren aurretik goraino bete zegoen Sutegiko aretoan.

“Oraindik beltzak gara”

Gaineratzen zuenez, “pelikula honekin aldarrikapen batzuk egin nahi izan ditugu; arrazakeriaren kontrakoa. Gaur egun arrazakeria nonahi dugu eta gorantz doa”. Bestalde, adierazpen askatasunaren aldekoa, zentsura ez baita desagertu. Filmaren ildoari erre-



Black is beltza filma eskaini baino lehen, Fermin Muguruzak filmari buruzko azalpen ugari eman zituen.

FERMIN MUGURUZA

“Oraindik beltzak gara ezin dugulako hitz egin ere espainiar estatuak duen telebista publikoan”

ferentzia eginez Muguruzak Sutegin zioenez, bai munduan eta gertuago ere, “oraindik beltzak gara ezin dugulako hitz egin ere espainiar esta-

tuak duen telebista publikoan”. “Black is beltza” animaziozko filma aurkezteko berriki TVE telebista katean egin dioten elkarrizketak eragindako zalaparta tarteko, Fermin Muguruza elkarrizketatu zuen kazetariak barkamena eskatu behar izan zuen, elkarrizketaren biharamunean. Horregatik nabarmentzen zuen igandean Sutegin “filma bera proiektatzek suposatzen du adieraz-

pen askatasunaren aldarri bat egitea”.

Zentsurarena ez da kontu berria. Bere ibilbidean hainbatetan sufritu behar izan duela oroitzen zuen Sutegin. Bai berak, baita hainbat euskal sortzaileek ere. “Ez Dok Amairuk pairatu zuten, guk ere pairatu dugu”. Adibide gisa jarri zuen, 11 urte eman zituela Negu Gorriak taldearekin Galindoren mehatxupean.

“Ezkutuan etortzen ginen Usurbila entseatzera”

Negu Gorriak aipatuta, Usurbil izan zuen gogoan. Herri honetaz oroitzapen gozo anitz ditu Muguruzak. “Ezkutuan etortzen ginen Usurbila entseatzera, Kakeren aitak prestaturiko soto-

ra. Hortxe egiten genituen entsegu guztiak”. Lehen diskoa 1990ean grabaturiko bideo batekin argitaratu zuten. Bideoan Usurbil ageri da, frontoi atzealdean, Zumetaren murala eta hainbat usurbildar. “Due-

la 28 urte grabatu genuen bideoan agertzen zarete zuetako asko. Hor ateratzen dira ume txiki batzuk, orain guraso izango dira, frontoiko Zumetaren mural zoragarri horren aurrean”.

Kulturaldia, azken txanpan

Azaroak 16, ostirala

■ 19:30 “Euskaraldirako 4 aitzakia” antzezlan Suteigiko auditorioan.

■ Antzezleak: Nahia, Xabat, Eli eta Patxi.

■ Zehaztasunak: “Euskaraldia zertarako? Usurbilen behar al da? 4 hauen esku utzi behar ote dugu Euskaraldiaren arduragure herrian?”.

■ Sarrera: 6 euro (aldez aurretik Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta NOAUA!ko egoitzan). NOAUA!ko bazkideek 4 eurotan erosi ahal izango dute NOAUA!ko egoitzan aldez aurretik.

■ Antolatzailea: NOAUA! K.E.



“Oreina” filmaren pasarte bat. Koldo Almandozen pelikula larunbatean ikus ahal izango dugu Suteigin.

Azaroak 17, larunbata Kantu-Bertso-Bazkari-jira

■ 12:00 Kantu-Bertso-Jira. Agin Laburu eta Aitor Sarriegi bertsolariekin eta Kantu Taldearekin, Mikel Laboa plazatik abiatuta.

■ Ondoren, bertso bazkaria Patri jatetxean. Bazkaritarako txartelak aurrez salgai 20 eurotan Patrin soilik.

■ Antolatzaileak: Kantu Taldea, Bota Punttuba eta NOAUA! Kultur Elkartea.

Azaroak 17, larunbata “Oreina” filmaren proiektzioa

■ 19:00etan Suteigin.

■ Zehaztasunak: Ramon Agirre antzezlea eta Marian Fernandez Pascal ekoizle exekutiboa etorriko zaizkigu pelikularen

berri ematera.

■ Sarrera: 6 euro (aldez aurretik Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta NOAUA!ko egoitzan). NOAUA!ko bazkideek 4 eurotan erosi ahal izango dute NOAUA!ko egoitzan aldez aurretik.

■ Zuzendaritza eta gidioa: Koldo Almandoz.

■ Aktoreak: Laulad Ahmed

Saleh, Patxi Bisquert, Ramon Agirre, Iraia Elías eta Erika Olaizola.

■ Sinopsia: “Hiria, industria-giroa eta natura elkartzen dituen hiri-periferia bateko hainbat pertsonaia erakutsiko dizkigu. Periferia horretan, jatorri desberdineko pertsonak gurutzatuko dira”.

■ Antolatzailea: NOAUA! K.E.

eMeren kontzertuarekin amaituko da Kulturaldia

Azaroak 18, igandea

■ 19:00etan, Suteigin.

■ Eme taldearen kontzertua.

■ Zehaztasunak: “Azken aldian soinu teknikari lanetan nabarmendu den arren, Haritz Harreguy ibilbide luzeko musikaria da. Larrua Truk eta Sen taldeetako gitarrajole eta kantu-sortzaile izan zen. Gaur egun, errekonozimendu handiko soinu teknikaria da. Bere alde sortzailea, ordea, ez du sekula baztertu eta eMe proiektua da horren erakusgarri. Ruben Caballero musikariarekin eta Nora Izagirre kantariarekin batera osatu berri duen taldea da eMe”.

■ Sarrera: 10 euro (aldez aurretik Bordatxon, Artzabalen,



Ekainean, hiru kantu abestu zituzten Joxan Artzeren omenaldian. Igandean Suteigin arituko dira Eme taldekoak.

Lizardin eta NOAUA!ko egoitzan). NOAUA!ko bazkideek 8

eurotan erosi ahal izango dute NOAUA!ko egoitzan aldez au-

rretik.

■ Antolatzailea: NOAUA! K.E.

ANTZERKIA "Euskaraldirako 4 aitzakia: Nahia, Xabat, Eli eta Patxi"
azaroak 16, **OSTIRALA**, 19:30 Suteği **SARRERAK**

noava

KANTU-BERTSO-BAZKARI-JIRA
"Agin Laburu eta Aitor Sarriegi bertsolariekin"
azaroak 17, **LARUNBATA**, 12:00 Mikel Laboa plazatik **BAZKARI-TXARTELA**

PELIKULA "OREINA"
azaroak 17, **LARUNBATA**, 19:00 Suteği **SARRERAK**

KONTZERTUA "EME TALDEA"
azaroak 18, **IGANDEA**, 19:00 Suteği **SARRERAK**

*SARRERAK: Aldez aurretik Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta Noava!ko egoitzan. Noava!ko bazkideek prezio berezian Noava!ko egoitzan aldez aurretik.
*BAZKARI-TXARTELA: Patri jatetxean salgai soilik.



NOAVA!KO KULTURALDIA 2018

USURBIL
AZAROA



BAZKIDEEEN TXOKOA



NOAVA!KO bazkide guztien artean zozketatu
genituen sari zoragarri hauek. azaroaren 9an



AZAROAREN 17AN. LARUNBATA
OREINA PELIKULA
IKUSTEKO 2 SARRERA BIKOITZ



AZAROAREN 16AN. OSTIRALA
"EUSKARALDIRAKO 4 AITZAKIA"
NAHIA, XABAT, ELI ETA PATXI
ANTZERKIA IKUSTEKO
2 SARRERA BIKOITZ



AZAROAREN 18AN. IGANDEA
EME TALDEAREN KONTZERTUA
IKUSTEKO 2 SARRERA BIKOITZ

noava! euskararen aterpe

Orain bazkide egiten bazara. OPARI eder bat jasoko duzu eta zozketa haurtan parte hartzeko aukera izango duzu
(40€ urtean soilik) 943 360 321 / elkarte@noava.eus

Euskaraldiaren eragina neurtuko dute Usurbilen eta Euskal Herrian

Aurrekaririk ez duen ekimena abiatzeaz da Usurbilen eta Euskal Herri osoan; 11 egunez biziko dugun Euskaraldia. Euskararen erabilera areagotu eta hizkuntza ohiturez jabetzea sustatzeko egingo dugun ariketaren eragina aztertuko du Soziolinguistika Klusterrak Euskal Herri mailan, eta Udalaren eskariz, baita Usurbilen ere. Horretarako hiru neurketa egingo ditu, Euskaraldirako izena emana dugun guztiok emailaz jasoko ditugun galdetegi bidez. Euskaraldiak bezala, Euskaraldiak duen eraginaren ikerketarako ere gure laguntza behar dute, Soziolinguistika Klusterreko teknikari usurbildar Olatz Altuna Zumetak lerrootan NOAUA!ri adierazi dionez.

NOAUA! Ikerlana zer helbururekin planteatu duzue?

Olatz Altuna Zumeta: Ikerlanaren helburua, hizkuntza ohituren aldaketen ikuspegitik Euskaraldiaren eragina zenbatekoa den neurtzea izango da. Horretarako planteatzen den metodologia galdetegi bidezkoa eta online beteko dena da. Euskaraldian parte hartzen dutenek egindako ahalegin horrek ze emaitza izango dituen zenbazu, ebaluatu nahi da. Hiru fasetan beteko den galdetegi planteatzen da. Galdetegi hiruzpalau erantzun posibleren artean, erraz betetzen da.

Horregatik da garrantzitsua Euskaraldian izen ematerakoan e-posta helbidea ipintzea?

Emandako helbide horretan norberak galdetegi betetzea eskatuko duen mezu bat jasoko du. Hiru uneetan jasoko du galdetegi ia antzekoa. Lehenengoa orain hasi, eta azaroaren 23ra bitarte. Bigarrena, Euskaraldia



Olatz Altuna Zumeta Soziolinguistika Klusterreko teknikaria da.

OLATZ ALTUNA ZUMETA

“Ikerlanaren helburua da hizkuntza ohituren aldaketen ikuspegitik Euskaraldiaren eragina zenbatekoa den neurtzea”

amaitu, eta abenduaren 4tik, bi aste epean. Gero hiru hilabeteko etena planteatzen da. Hirugarrena martxoan egingo da. Guretzat garrantzitsua da, datuak aztertu ahal izateko galdetegiak hiru une horietan betetzea. Azkenean hiru une

horien errealitatea jaso behar dugu. Animatuko nuke jendea galdetegi hiru une horietan betetzera.

Bereziki hirugarren unekoa?

Batez ere bigarrenetik hirugarrenera dago tartea. Hirugarrenak emango duen argazkiak, hizkuntza ohitura horietan aldaketa eman den edo ez erakutsiko digu.

Euskaraldiak eragin nabarmena duela frogatu ahal izan zuten iaz Lasarten izan zuten esperientzian. Erreferentzia edo

eredu gisa baliatu da hastear dugun Euskaraldirako.

Lasarten %62ko erabileratik, esperientzia amaitu berritan %84ra igo zen euskararen erabilera eta handik hiru hilabetera %81era jaitsi zen. 20 puntuko hobekuntza izan zuten. Erreferentzia bezala erabili da motibagarria ere badelako. Horretarako ebaluatu, neurtu behar da. Jendeari esfortzu bat eskatzen badiozu, ikustea emaitzik izan duen edo ez. Planteatzen den ikerketa honekin hori egingo da. Informazio gehigarria ere jasoko da, zerk huts egin duen, hurrengo edizioei begira zer hobetu dezakegun ikusteko.

Ikerketa honetan bildutako datuek zer bide egingo dute gero?

Datuen azterketarako epe bat beharko da. Emaitzak uztaila aldera kaleratuko dira. Aipatu behar da, bi mailetan egingo ditugula ikerketak. Batetik Euskal Herri mailan, Euskaraldia orokorrean ebaluatzeko. Hor Euskal Herri mailako datuak, lurraldeka edo herrialdekakoak, eta zonalde soziolinguistikoen arabera izango ditugu. Horrez gain, udal batzuk beraien herrian zer gertatuko den aztertu nahi dute. Tartean Usurbilek ere bere ikerketa propioa egingo du.

“Jendeak ikusi du erabilera jarri behar dugula erdigunean”

NOAUA! Euskararen kale erabileran izan den behararen kezkatik ere badator Euskaraldia?

Olatz Altuna Zumeta: Azken urteetan euskararen sustatzean gabiltzanon artean bazebilen

kezka hori. Ezagutzen aurrera egiten ari gara Euskal Herrian, baina erabileran ez da halako bilakaerarik ikusi. Kale erabileraren neurketak hori begi bistan jarri zuen. Euskaraldirako milaka eta milaka pertsona izen

ematen ari dira. Bada nik uste seinale jendeak ikusi duela erabilera jarri behar dugula erdigunean. Honi heldu behar diogula. Ekimen berri bat proposatu da eta nik uste jendeak ilusioz hartu duela.

“Euskaraldiarekin kultura soziologiko berri bat sortu behar dugu”

NOAUA! Gaurkoz ezin dugu jakin Euskaraldiak zer nolako eragina izango duen. Baina dagoen giroari begira, izen emate kanpainaren arrakasta ikusita, aurreikuspenik egin daiteke?

Olatz Altuna Zumeta: Momentu honetan ekimenak aurretik sortu duen ilusioak erakusten du badela giro bat, eta hori bada jada positiboa. Badaude beste elementu batzuk.

Euskaraldian parte hartzeak norberaren hizkuntza harremanetan daukagun egoeraz jabetzen laguntzen du. Euskaraldiak laguntzen du irudikatzen euskaraz bizi nahi dugun pertsonak zer nola funtzionatu genezakeen. Hain zuzen, inguruan geroz eta jende gehiagok ulertzen badu, niretzat ariketa bat da ere saiatzea gaitasun hori, hitz egiteko gai ez baina ulertzen dutenen artean nola komunikatu. Ulermen gaitasuna balioan jartzea. Orain arte uste dut gure kultura linguistikoa izan dela, hitz egiteko gai ez bada, oraindik ezin dugu elkarrizketarik mantendu. Oso gutxitan jarri gara horretan. Baina ulertzeko gai baldin bada, nik orduan ez dut aldatu beharrik hizkuntza. Uste dut kultura horretan sartzen laguntzen ari dela Euskaraldia. Horretarako ordea entrenamendua behar da. Formazio saioak ere ematen ari dira horretarako. Horrek ere laguntzen



Olatz Altunak eta Inaxio Usarralde “Euskaraldia: zergatik eta zertarako?” hitzaldia eskaini zuten irailean.

OLATZ ALTUNA ZUMETA

“Inguruan geroz eta jende gehiagok ulertzen badu, niretzat ariketa bat da ere saiatzea gaitasun hori, hitz egiteko gai ez baina ulertzen dutenen artean nola komunikatu. Ulermen gaitasuna balioan jartzea”

digu irudikatzen, euskaraz bizi nahi badugu, nola funtzionatu behar den.

Erabilera modu berriak daude, elkarrizketa elebidunenak. Ez gaude oso ohituak. Kale erabileraren neurketan, elkarrizketa elebidunak zenbatzeko saiakera egin genuen 2011n eta 2016an. Elkarrizketa elebidunak oso kopuru txikitik ematen ziren. Gehienetan gehiago ziren agian guraso eta umeen artean, oso elkarrizketa laburrak. Euskaraldiarekin kultura soziologiko berri bat sortu behar dugu; ulertzen duten horiei beraien lekua ematea, hala segituan gaztelerara aldatu gabe beste modu batean funtzionatu dezagun, euskaraz alegia.

Txapak ostiralean banatuko dira

Azaroak 16, ostirala: “Txipli Txapa Pum” txapa banaketa

■ Goizean zehar, txapak eskuratzeko aukera NOAUA!n eta Potxoenean.

■ 17:00-19:00 Gaztain jatea eta txapak eskuratzeko aukera frontoi inguruan.

■ 19:30 NOAUA!ren Kulturaldiko antzezlanak Suteagin: “Euskaraldirako 4 aitzakia: Nahia, Xabat, Eli eta Patxi”.

Azaroak 20, asteartea

■ 18:00 Ahobizi eta Belarriprest guztientzako tailerra Potxoenean.

Azaroak 23, ostirala:

Euskaraldiaren hasiera

■ 8:00 Euskaraldiari hasiera emateko 11 suziri.

■ Egunean zehar, musika plaza inguruan.

■ 17:00 Bihurri Ludotekan zinea euskaraz eta palomitak 6 urte arteko haurrentzat. Sarrera: doan.

■ 17:30 Taloak frontoian.

■ Ondoren, Orbeldi dantza taldearen emanaldia eta Errebal taldearen dantza musikatu frontoian.

■ 19:00 Andatza M.K.T.-ren Mendi Astearen baitan, “Aizkora hotsak goi mendietan” dokumentala Suteagiko auditorioan.

Izen ematea:

■ NOAUA! K.E.-ren egoitzan.

■ Emailez usurbil@euskaraldia.eus edo usurbil.eus@euskaraldia.eus web orrian.

■ NOAUA!ren Kulturaldiko Suteagiko ekitaldietako mahaiari.

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Patxi
barkariak EGUNERO
afariak, asteazkenetik larunbatera
943 362725 · 688 690 361

Nahia, Xabat, Eli eta Patxi: “Izena eman Euskaraldian, guztia euskararen mesederako da!”

Nahia eta Xabat lagun berriekin, bueltan datoz azken hilabeteotan Usurbilen Euskaraldia giro-tzen aritu diren Eli eta Patxi. NOAUA!ren Kulturaldiaren eskutik, ostiralean (azaroak 16, 19:30) Sutegira. Euskaraldian parte hartzeko “4 aitzakia” edo gehiago emango dizkigute!

NOAUA! Euskaraldia abiatzear dugu. Izena eman duzue?

Eli: Oraindik ez dugu izena eman. Hortxe gaude dudan, Ahobizi edo Belarriprest izan.

Patxi: Izen emateko ez digu denborarik eman. Lanean ari gara eta gainera ni aurten Gas-teizen hasi naiz unibertsitatean. Han ere lanean ari naiz, Euskaraldiarekin noski. Eli ere Donostian ari da lanean. Baina lasai, denbora hartuko dugu eta garaiz apuntatuko gara!

Ahobizi edo Belarriprest izan nahi duzue?

Eli: Duda dut eta pentsatu egin nahi dut.

Patxi: Belarriprest izatea oso polita da. Zuk besteari zuri euskaraz mintzatzeko gonbita egitea ondo dago. Ahobizi izanda, neure buruari lehenengo hitza euskaraz egiteko erronka jartzea ere baloratzen da.



Ostiral honetan Sutegin arituko dira arratsaldeko 19:30ean. “Euskaraldian parte hartzeko 4 aitzakia” antzezlan eskainiko dute.

Azken aldian izen emateak bil-tzen aritu zarete. Jendea Euskaraldirako animoso al dago?

Eli: Pixkanaka data heltzen ari den neurrian, jendea berotzen ari da eta izen emate asko daude. Baina Belarriprest gutxixeago daude. Hori orokorra da ordea ezta Patxi?

Patxi: Nik uste dut jendeak uste duela Belarriprest izatea Ahobizi baino gutxiago dela eta hori ez da hala. Zu Belarriprest izanda gonbita egin behar diozu besteari zurekin euskaraz mintzatzeko. Norberak bere buruarekin konprometitu behar du. Ahobizi txapa jartzen badugu eta gero ez badugu hartutako ardura betetzen, ariketak ez du ezertarako balio izango.

Belarripresten inguruan sortu da zalantzarik; euskaraz hitz egiteko gai denak Ahobizia izan behar duela, nola izango ote den Belarriprest.

Eli: Ni horregatik nago zalantzan. Belarriprest izatea baita gonbita zuzen bat egitea, besteek niri euskaraz hitz egitea. Horrekin nabil ba bueltaka! Ni betidanik Ahobizi izan naiz, lehenengo hitza nahigabe beti egiten dut euskaraz. Orduan niretzat Ahobizi izatea ez litzateke ariketa bat izango. Belarriprest izanez, jendeari niri euskaraz hitz egiteko gonbita luzatuz bai ordea.

Euskaraldirako formazio saioak antolatzen ari dira, garrantzitsuenak proposatzen den

ariketa ondo egitea baita. Zuek prestatu zarete?

Eli: Ni ilusioz hasiko naiz! Urduri nago, zer izango ote den, egia ote den 11 egun horietan euskara gehiago erabiliko dela. Guk ere formazio klaseak jaso ditugu.

Patxi: Bai, behar genituen. Abuztuan dena genekielako uste genuen, baina gero hori horrela ez zela jabetu ginen. Guk ere formazioa behar genuela alegia, horregatik joan gara Euskaraldiak antolaturiko tailerretara. Hor azaleratu dira, gure buruan genituen zalantzak; kanpoko batekin nola hitz egin, dendariak nola mintzatu behar den zurekin... Tailer egokiak antolatu dituzte eta oso dinamikoak gainera. Askok ikasi dugu!

Eli: Maitek eta Maialenek eman ziguten lehen ikastaroa!

Patxi: Beraiek gu baino urduriago zeuden. Hori du ona Euskaraldiak, antolatzen den lehen aldia da. Denak berriak gara. Horrek ilusioa piztu duela uste dut.

Eli: Gai asko sortu dira eta batzuetan bukatu ezinik egon gara. Gu okerrenak. Berriketan jartzen ginen.

Patxi: Eztabaida ugari izan arren, zalantzak argitzeko oso ondo etorri da.

“Gu laurok saiatuko gara aitzakiak ematen”

NOAUA! Ostiralean antzezlan bat eskaintzera zoazte Sutegin, bi lagun berriekin. Koadrila hazi zaizue?

Eli: Nahia eta Xabat, usurbildarrak dira baita ere. Ezagutzen dituzue. Udan ez dira gurekin ibili ezin izan dutelako, baina Euskaraldian parte hartzeko desiratzen zeuden baita. Azkenean ostiralean gurekin batera egongo dira.

Patxi: Euskaraldia hori baita. Hori da saretze lana. Gu biok hasi ginen baina gero gure ingurukoei zabalduz eta zabalduz jende gehiago sartu da.

Izenburuari erreparatuta, zer 4 aitzakia behar ditugu Euskaraldian parte hartzeko?

Patxi: Hori ezin da esan! Hori jakiteko antzezlanak ikustera etorri beharko duzue!

Eli: 4 aitzakia dira baita, Xabat, Nahia, Eli eta Patxi! Badira lau!

Patxi: Gu laurok saiatuko gara aitzakiak ematen. Baten batek dudaren bat baldin badu Euskaraldia beharrezkoa ote den edo ez, zertarako den, guk behar ote dugun, etorri eta guk emango diogu Euskaraldian parte hartzeko aitzakia.

Zalantzan izango da baten bat.

Izen eman edo ez. Zer esan hari?

Eli: Dudan dagoena animatzeko. Izena eman, guztia euskararen mesederako da. Gaur joan naiz Nafarroako herri txiki batera, eta espero ez nuena han ikusi dut; Euskaraldirako izena emateko aukera eta hunkitu naiz. Begira, zenbat lan egiten ari den jendea! Izena eman!

Greziako errefuxiatuentzako neguko arropa bilketa egingo da ostegunean

Zapareak proiektu solidariotik 2011z geroztik Etiopian eta 2016ko martxotik Greziako errefuxiatuak laguntzen ari dira. Jaten ematen dabilta azken urteotan, eta horrekin batera, orain, ate joka dugun negura begira arropa biltzeko Euskal Herri mailako kanpaina antolatu dute. Hego Euskal Herriko hiriburuetan bideratuko dute nagusiki kanpaina, baina "lau erdigune horietaz gain, beste herri eta eskualde batzuetako elkarteekin ere harremanetan jarri gara, ekimena zabaldu eta arropa bilketaren sarea eta informazioa ahalik eta leku gehienetara iritsi dadin".

Usurbila ere heldu da ekimen solidario hau. Herritar talde batek antolatuta, Greziako Lesbos eta Chios uharteetako errefuxiatuentzako ate joka dugun negura begirako arropa bilduko da ostegunean, azaroaren 15ean 18:00-20:00 artean, Mikel Laboa plazan. Neguko arroparen behar handia dute Grezian eta hau da bildu nahi dena:

■ Haurrak (haur arropa etiketa dutenak hartuko dira kontuan): txaketa, jertseak, berokiak, galtzak, gonak, osagarriak (bufandak, txanoak, eskularruak, gerrikoak...) eta zapatak. Barruko arropa eta galtzerdi berriak jasoko dira.

■ Emakumeak: txaketa, jertseak, berokiak, galtzak, gonak,



Biltzen den arropa Greziako Lesbos eta Chios uharteetara bidaliko da. Arroparen banaketa Attika eta Feox elkarteek kudeatuko dute.

BEHAR HANDIA

"Herritar talde batek antolatuta, Greziako Lesbos eta Chios uharteetako errefuxiatuentzako ate joka dugun negura begirako arropa bilduko da ostegunean, azaroak 15, 18:00-20:00 artean Mikel Laboa plazan. Neguko arroparen behar handia dute Grezian"

osagarriak (bufandak, txanoak, eskularruak, gerrikoak...) eta zapatak. Barruko arropa eta galtzerdi berriak jasoko dira.

■ Gizonezkoak: txaketa, jertseak, berokiak, galtzak, osagarriak (bufandak, txanoak, eskularruak, gerrikoak...) eta zapatak. Barruko arropa eta galtzerdi berriak jasoko dira.

Elikaduraren arloan lanean
Aipatu moduan 2016ko mar-

txoaz geroztik Greziako errefuxiatuak laguntzen dihardute Zapareak elkartasun proiektutik. "Zapareakek hiru urte daramatza errefuxiatuen alde lan egiten elikaduraren arloan, Grezian bertan otorduak sukaldatu eta errefuxiatuen artean horiek banatzen, edota elikagaiak bidaltzen Grezian bertan errefuxiatuekin lan egiten duten hainbat proiektuetara".

Gaineratu dutenez, "Grezian errefuxiatuei jaten ematen gabiltza. Bi urte hauetan zehar 700.000 otordu baino gehiago banatu ditugu eta otorduak prestatzeko 400 boluntario baino gehiagoren laguntza izan dugu. Urtebetez Chios uhartean izan ginen lanean eta 2017ko urriaz geroztik Atenaseko Victoria Social Centerren gaude. Lanean jarraituko dugu errefuxiatuek gure laguntza behar duten bitartean".

Joan den urria hasieran Greziako Lesbos uhartera bi-

daiatu zutenean arropa biltzeko kanpaina honen beharraz jabetu ziren. "Bertatik bertara ikusi genuen arropa biltegietan arropa behar handia zutela neguari begira. Hori ikusita, arropa bilketa bat antolatzen hasi gara, behar hori ahal dugun heinean asetzeko. Bilketa azaroan egingo dugu, negurako Grezian egon dadin eta errefuxiatuek neguari aurre egiteko arropa egokia izan dezaten. Arropa hori Greziako Lesbos eta Chios uharteetara bidaliko da, arroparen banaketa Attika eta Feox elkarteek kudeatuko dute".

Informazio gehiago:
zapareak.eus

Diru ekarpenak egiteko aukera ere bada

Bigarren deialdi bat ere egin dute Zapareak egitasmotik, arropa helmugara ailegatu dadin bidalketa gastuei aurre egiteko laguntzeko deia. "Zuen laguntza daraman palet bakoitzak bidaltzeak 150 euro suposatuko digu. Ez du ezertarako balio arropa biltzeak, ezin badugu garaiz bidali".

Diru ekarpenak egitera animatzen dute, arropa biltzeko guneetan jarriko duten eltxetoetan dirua uztera edo Laboral Kutxako ondoko kontu zenbakian diru ordainketak egitera:

ES18 3035 0103 84 1030037127.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ZENDOIA
ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

55 herritar Behobia-Donostian

Milaka eta milaka lasterkariren artean ez da herritarrik falta izan aurtan. Guztira, 54 usur-bildar eta zubietar batek parte hartu zuten azaroaren 11ko 54. Behobia-Donostia lasterketan. Hemen antolakuntzaren web orrialdetik jaso ahal izan dugun etxeko en sailkapena:

Sailkapena

Iñaki Añorga Unanue 01:14:53
 Eneko Portu Irasuegi 01:14:57
 Xabier Izeta Aramendi 01:19:24
 Axier Dominguez Prieto 01:23:42
 Iñaki Gerica Juan 01:24:45
 Tito Izaguirre Godineau 01:27:14
 Rosa Uribe Navarro 01:27:57
 Garazi Artola Balda 01:28:36
 Anartz Aizpurua Berdegue 01:33:26
 Jokin Zubiaur Blasco 01:34:48
 Juan Corea Gonzalez 01:35:05
 Ander Aristegui Otamendi 01:38:37
 Karmele Liceaga Alcantara 01:39:52
 Julen Lazcano Iturrioz 01:40:48
 Arturo Rojas Pedrini 01:40:59
 David Torcida Olasagasti 01:41:34
 Alfonso Lopez Garcia 01:41:58
 Borja Chamorro Navarro 01:44:59
 Aroa Arruti Castresana 01:45:20
 Sergio Montes Guerra 01:45:27
 J. J. Azkonobieta Etxeberria 01:45:41
 Izadi Azkonobieta Etxabe 01:45:41



Joxe Juan Azkonobietak seme-alabekin batera osatu zuten Behobia-Donostia. Zorionak! Argazkia: Facebook.

Andoni Azkonobieta Etxabe 01:45:42
 Ion Portu Irausegi 01:49:29
 Joxemari Portu Azpiroz 01:49:59
 Joseba Irazabal Arrastio 01:50:57
 J. C. Perez Lizarralde 01:51:43
 F. Javier Rodriguez Cuenca 01:51:54
 Oliver Garcia Linares 01:51:55
 Jon Guembe Urta 01:52:09
 Eli Eizagirre Bruño 01:52:26
 Maitane Eizagirre Bruño 01:52:26
 Ainhoa Torcida Olasagasti 01:53:39
 Ander Jauregi Urdanpilleta 01:54:03

Maider Elizasu Lasa 01:56:08
 Javier Martinez Manso 01:56:48
 Salbatore Arruti Aramburu 01:57:26
 Arantza Esnaola Hernaiz 01:57:29
 Ekhi Arrieta del Pico 01:58:01
 Erramun Erro Aizpurua 01:59:30
 Iñigo Alkorta Etxeberria 01:59:31
 Alfonso Perez Jimenez 02:00:31
 Iker Corral Lizarraga 02:02:24
 Iban Marichalar Elizondo 02:02:39
 Pablo Roura Martinez 02:03:56
 Saioa Erro Aizpurua 02:03:56

Izaskun Arrillaga Azcarate 02:03:58
 Xabier Arruti Landa 02:07:46
 Sergio Garcia Sierra 02:07:50
 Maximo Garcia Sanchez 02:07:51
 Gurutze Sierra Moron 02:07:51
 Mikel Bereciartua Oyarbide 02:08:42
 Aritz Eneko Olagoy Olazabal 02:12:37
 Maialen Lizaso Muxika 02:12:43
 Nagore Arruti Urkiola 02:21:07
 Oinatz Iparragirre Arregi 02:30:23
 Iturria: behobia-sansebastian.com

Haizeteak Zubietako errebote plaza kaltetu zuen



Zubietako errebote plazako sare berria bota zuen. Eliza ondoko hormaren zati bat ere kaltetu zuen. Argazkiak: Unai Agirre.

Haizeak Zubietako errebote plazako sare berria bota zuen joan den ostiral gauean. Gaueko 22:50ean eman zen ezbeharra. Kalteak begi bistakoak

dira. Unai Agirrek igorri digun informazioaren arabera, “sarea duela bi urte eskas jarri zuten, 6 metroko erdiko postea eta eliza ondoko hormaren zati bat,

4x1 metrokoa”. Haizearen indarrak gain, bestelako zehaztapenik ere egin daiteke. Agirreren esanetan “harrigarria da, bere garaian petrilan sartu zuten 6

metroko postea lurrarazpian 40 zm inguru bakarrik zuela sartuta”.

Informazioa eta argazkiak: Unai Agirre.

Datorren ostegunean abiatuko da Mendi Astea

Azkenak izan daitekeen Mendi Astearen atarian egon gaitezke. Gogoan izan, Andatza M.K.T.-k 2018rako iragarriak zituen konpromisoak bete ostean, egungo zuzendaritzak mendizaleen bilgunea utziko duela. Zortzi urteko ibilbidea osatu duen taldeak erreleboa behar du. “Andatza Mendi taldea 160 bazkideek osatzen dugu, eta mendi zaletasunak bere bidea jarraitu dezan, zuzendaritza berri bat aurkeztea beharrezkoa da. Beraz, Andatzako ildo jarraituko duen taldetxoa osatzea animatzen dizuegu eta erreleborako gaur eguneko zuzendaritza taldearen laguntza izango duzue”.

Taldea utzi aurretik, Usurbil-en tradizio luze duen azken Mendi Astea antolatu dute:

Mendi Astea

Azaroak 22, osteguna

■ 19:00 “Ametsen harria” eta “Azpeitia Annapurna II 86” ikus-entzunezkoen proiektzioak Sutegin, Jose Mari Azpiatzuk eta Josu Bereziartuak aurkeztuta. Sarrera doan.

“Ametsen harria” (30 minutu): “1986an bost mendizale azpeitiarrek Annapurna II mendira espedizioa egin zuten, eta haren dokumentala, Annapurna II 1986, berreskuratzeko eta digitalizatzeko asmoz – Euskadiko Filmategian gordeta zegoen lana ordura arte-, lanean hasi ziren iaz Paradisu Zinema eta Kulturaz kooperatiba. Baina proiektu horrek bazuen bigarren helburu bat: mendizale haiek “abentura” hori nola prestatu zuten gogorazteko beste dokumental bat egitea. Hain zuzen ere, lan horren emaitza da Ametsen harria. Yuri Agirre arduratu da ikus-entzunezkoa zuzentzeaz”.



21 mendizalek egin zuten aurreko igandean Otsondo-Bidarrai mendi ibilaldia. “Gorramendi, Otanarte, Gorramakin, Bardako kaskoa eta Irubelakaskoa gailurrak igo genituen ibilbidean”, Andatzatik aditzera eman digutenez.

“Azpeitia Annapurna II 86” (75 minutu):

“1986an zortzi lagun joan ziren Annapurna II egitera. Historiako laugarren saiakera izan zen: 1960an Chris Boningtonek zuzendutako militarren espedizio indiar-britainiar batek egin zuen lehen igoera, 1969an Yugoslaviako bigarren talde batek, eta 1983ko udaberrian japoniarrez osatutako espedizio batek. Hala, azpeitiarrez osatutako lagun-taldeak 7.937 metro garai den Annapurna II igotzeko erabakia hartu zuen, eta pixkanaka, espedizioa prestatu ahala eta mendizaleen balentriaz jabetuta, herri osoak hartu zuen parte proiektuan”.

Azaroak 23, ostirala

■ 19:00 “Aizkora hotsak goi mendietan” ikus-entzunezkoaren proiektzioa Sutegin. Sarrera doan.

“Bidaia bat, bi helburu eta hiru pertsonaia. Alex Txikonek eta Xabier Erro mendizaleak, Ernesto Ezpeleta Bihurri aizkolariarekin batera, Euskal Herriatik Pakistanerako bidaia egingo dute autoz. Azkeneko helburu bat jarraituko dute: furgoneta Felix Baltistan Fundazioari ematea, Karakorumean.

Azaroak 25, igandea

■ 07:30 Alkiza-Hernio-Asteasu mendi irteerara autobusez Oiardo Kiroldegitik.

■ Ibilbidea: 19 kilometro.

■ Izen ematea: 30 euroko (bidaia + bazkaria) ordainketa egin azaroaren 21a baino lehen, kontu zenbakiotako batean: Rural Kutxa: 3008 0259 1630 0543 0321.

Kutxabank: 2095 5069 0710 6848 9805.

Oharrak:

■ Plaza kopuru mugatua.

■ Ibilaldia amaitutakoan, otordua Asteasuko Iturriondo jate-txean egingo da.

■ Andatza M.K.T.-k antolaturiko irteeretan parte hartzeko derrigorrezkoa da mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean izatea. Federatu gabe dagoenari tramitea egingo zaio, hala nahi badu. Horretarako web orrian aurkitzen da egin beharrezkoa, edo jarri bestela harremanetan taldearekin, andatza@hotmail.com helbidean.

Informazio gehiago:

andatza.com

Antolatzailea:

Andatza M.K.T.

Futbol partidak

Hararen

Azaroak 17, larunbata

■ 09:30-10:30 Alebin guztiekin, mutil eta neskekin futbol eta eskubaloiko partidak.

■ 10:45 Infantil mutilak:

Udarregi Usurbil FT B-Ostadar

■ 12:30 Kadete mutilak:

Usurbil F.T.-Hernani CD

■ 16:00 Regionalak:

Usurbil F.T.-Kostkas KE

Azaroak 18, igandea

■ 10:00 Futbol Eskola 2008:

Usurbil F.T.-Beasain SD

■ 12:00 Futbol Eskola 2010:

Usurbil F.T.-Texas

■ 17:00 Kadete neskek:

Usurbil F.T.-Euskalduna SD

Eskubalo

partidak Oiardo

Kiroldegian

Azaroak 17, larunbata

■ 11:30 Infantil mutilak:

Udarregi B-Ereintza

■ 16:30 Kadete mutilak, Euskal

Liga: Usurbil K.E.-Zarautz

■ 18:00 Jubenil mutilak, Euskal

Liga: Usurbil K.E.-Zarautz

Eskubaloiko errifa

zozketako irabazlea

Usurbil Kirol Elkarteak NOAUA!ra helarazitako ondoko argazkian duzue, eskubalo taldeen bilguneak eginiko azken errifa zozketako irabazlea. Marrije arropa dendan xahutzeko 50 euroko erosketa balea eskuratu du, aurreko aldizkarian berri eman genizuen moduan, saritua izan den 9.238 errifa zenbakiaren jabeak. Zorionak!



Naiara Jakak 50 euroko balea jaso du.

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trastelekua. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

Etxebizitza eta garajea salgai Etxe-aldian (San Esteban kalea). Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela eta bainugela. Etxebizitzak 60m² eta garajeak 22m². 688866968

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitzak 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Erreka Txiki 13. Duplexa salgai Usurbilen. 132 metro², 80 solairu nagusian; 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Garaje itxia etxerako zuzeneko sarbiderekin eta trasteroa. 320.000 euro. 646 305 465.

126m²ko pisua salgai Aginagan, 65m²ko ganbararekin. Oso eguzkitsua, dena kanpoaldera. Berritu beharra. Prezioa 186.000. 659257889 edo 680742504.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro² lokala salgai Munalurran. Etxea bihurtzeko baldintzak betetzen ditu. Prezioa: 68.000 euro. 943 916 182 (Jon).

90 m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m²- terraza, 8 m² trastelekua eta bertan 33 m²-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, telatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Alokairuan

Atxegalden pisu bat alokatzen da. 3 logela 2 komun, egongela eta sukaldea. Dena kanpoaldera eta igogailuarekin. 658756344

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Abendurako pisua alokairuan hartu nahi dut, Aginagan, Usurbilen edo Orion. 690 367 952

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara,

biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziatzeko. 667336405.

Camper furgoneta salgai. 2007koa, 130.000km. Oso egoera onean. Dutxa, ohea, frigora, armairuak, termikoki aislatua, mahaia,

argiak, aurreko eserlekuak biragarriak... (679471831 Jon)

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatziki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriando 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro² lokal bat salgai. Alperburu 3an. 699 306 158

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Kamarero eta sukaldari laguntzailea behar dira Aratz erretegiaren. info@restaurantearatz.com

Kentuene jatetxean jantokirako zerbitzari bat behar da asteburuetarako. Euskara jakitea garrantzitsua. kentuene@kentuene.com

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen. Orduka, interna edo externa bezala. Segituan la-

nean hasiko nintzake. 637 106 649.

Lan egin nahi dut. Interna edo externa bezala. Pertsona helduak zaintzen, supermerkatuan, tabernetan... Tel. 682 723 520

Pertsona helduak zainduko nituzke, asteburu, jai egunetan eta gauean, baita erietxean ere. 606 661 048 / 943 404015.

Jende heldua zaintzeko prest. Interna moduan edo orduka. Dokumentazio osoa dut. 682 72 35 20.

Neska euskalduna, Usurbilen umeak zaintzen egingo nuke lan udara honetan: ekaina, uztaila edota abuztua (goiz, arratsalde edo orduka). 617263123.

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Etxean, ospitalean, gauean, externa bezala, orduka edo asteburutan. 671763558

Lan bila nabil interna edo externa bezala. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Urtebeteko esperientzia. Arduratsua, erreferentzia onekin. 666 295 450

Garbiketa egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko. Esperientzia duen neska, arduratsua. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko. Ospitalean, etxean, gauean. Garbiketa orokorrean ere bai. 671 763 558

Lan bila nabil etxeak garbitzen edo umeak zaintzen, ekaina eta uztaila, goizetan eta Usurbilen. 608201745.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna, externa edo orduka. 632 541 872

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Interna, externa, orduka. Helduak edo umeak zaintzen. 676 188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819



Zorionak Urko!

Muxu pila bat familiaren partez. Maite zaitugu.

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632090146

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632793747

Lan bila nabil. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta erreferentziak. 662 910 181

Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Geriatriako eta lehen laguntzako ezagutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Goizez edo arratsalde. Esperientzia daukat. 690 336 444.

Lan bila nabil. Orduka eta arratsalde. 663 776 93

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, gauean, asteburutan, externa bezala edo garbiketa lanetan. 671 763 558.

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziak. Tel. 632 576 258

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun herriar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsaldetan umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketa lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketarako egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabilza. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketa lanak egiten; bulegoak,

garajeak, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan ari-tzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak eguneratuta eta esperientziarekin. 645 067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketa lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauean. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oporretan umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrak emateko prest egongo litzateke: euskeran, gaztelan, ingelesean eta frantsesean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauean... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketara. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelehenera ostiralerara. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauean... edozein modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketara lan egiteko. Interna moduan, orduka edo gauez. 677 624 965

Neska farmazialaria seguitan lanean hasiko nintzake. Pertsona

helduak edo umeak zaintzen edo garbiketara, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Geriatria laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldearen ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Apropoza pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

BESTELAKOAK

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gaztetxoentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 63599606

Oxelo markako patinetek bat galdu dugu frontoi inguruan. Aurkitzen baduzu deitu: 615 760 826 telefonora. Izaro

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan 696014585

Ingeleseko eta frantseseko klaseak ematen ditut, etxetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

14 bat urteko eta eskumuturraren tamainako dordoka galdu dut. Babilio sentimental handia du. Aurkitu baduzu: 663 065 460.

Mandarina japoniarrek saltzen ditut: 659 18 51 07 (Jose Antonio).

Mutur txuri urdindun eta horidun perikito bana desagertu dira. Aurkitu badituzu deitu: 619 817 460.

Udarregi Ikastolan klase partikularrak emateko jende bila gabilza. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenera ostiralerara: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Abulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Ihena Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arretoa ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneako Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 15	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Ostirala 16	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Larunbata 17	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Igandea 18	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Astelehena 19	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Asteartea 20	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Asteazkena 21	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Azaroak 15 - Azaroak 25

Osteguna 22	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Ostirala 23	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loloia 9. Lasarte
Larunbata 24	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Igandea 25	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda azaroa

16 ostirala

- **Euskaraldia: txapa banaketa** Goizean zehar, txapak eskuratzeko aukera NOAUA!n eta Potxoenean. 17:00-19:00 Gaztain jatea eta txapak eskuratzeko aukera frontoi inguruan.
- **Kulturaldia: "Euskaraldirako 4 aitzakia"** antzerkia Sutegin. 19:30ean.

17 larunbata

- **Kulturaldia: Kantu-Bertso-Bazkari-Jira** 12:00etan, Mikel Laboa plazatik abiatuta.
- **Berdintasun ipuinak haurrentzat** 17:30ean Aginagako ludotekan.
- **Kulturaldia: "Oreina"** filmaren proiektzioa. 19:00etan Sutegin.

18 igandea

- **Kulturaldia: "Eme" taldearen kontzertua.** 19:00etan Sutegin.

Skasti eta Voltaia, larunbatean Aginagan

Aginagako Eliza Zaharra biziberritzeko, tokia bera kultur gune gisa dinamizatu eta bultzatzeko hitzordu berria finkatu dute larunbat honetarako, azaroak 17.

Urola Kosta parteko musika nagusi izango duen kontzertu gaua antolatu dute. 23:30ean hasita, Skasti zarauzta-rrak, Voltaia zumaia-rrak eta Dj Seymar!

Sarrerak salgai

Kontzertu gauerako sarrerak aurrez eskuratu ahaliko dituzue 5 eurotan Aitzaga tabernan. Bestela, egunean bertan sarrera kopuru mugatua eskuragarri izango dute Aginagako Eliza Zaharrean.



Sarrerak 5 eurotan eskuratu daitezke Aitzaga tabernan. Egunean bertan, Eliza Zaharrean. Argazkian, Skasti.

Santueneko Argazki Lehiaketa martxan

0-3, 4-7 eta 7-16 urte artekoek zuzendua dago ekimena. Hauxe landu beharreko gaia: "Neguko irudiak". Argazkiak azaroaren 30era aurkeztu beharko dira Santuenea Kultur Elkarteko egoitzan. Xehetasun gehiago jaso daitezke bertan.

Maria Jesus Etxeberriaren argazkiak ikusgai

"Eguzkia eta argiaren indarra" izeneko erakusketa ikusteko azken egunak dituzue. Azaroaren 16ra bitarte egongo da zabalik Sutegin, ordutegi honetan:

- Astelehenetik ostiralera, 16:30etik 19:00etara.

Datozenak

Azaroaren 20an, Erle Eguna girotzeko hitzaldia Potxoenean

Azaroaren 25ean ospatuko den urteko hitzordu gozoena girotzeko, erleei eta polinizazioari buruzko hitzaldia antolatu du Jakoba Errekondorekin Erle Lagunak taldeak, hurrengo astearterako:

Azaroak 20, asteartea

- 19:00 Hitzaldia Potxoenean: "Erleak eta polinizatzaileak nola erakarri, zer egin dezakegu?"
- Hizlaria: Jakoba Errekondo.

Azaroak 25, igandea

Usurbilgo frontoian:

- 9:00-10:00 Ezti eta gozogintza bilketa.
- 11:00-14:00 Erakusketa (erleak, ez-tia, ontziratze prozesua...), postuetako salmenta, marrazki lehiaketa, bideoak Sutegin.
- 13:30 Erleek beraiek ekarritako sari banaketa: Ezti Lehiaketako irabazleak / Gozogintzako irabazleak / Marrazki lehiaketarako irabazleak. Ezti desberdinen dastaketa Euskal Herriko XX. Ezti lehiaketa eta gozogintza lehiaketa.
- Antolatzailea: Erle Lagunak.

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak • beira bikoitza
- segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

600 024 825

ETXETRESNEN KONPONKETAK eta SALMENTA

MARKA GUZTIAK azkar, prezio onean
20 URTEKO ESPERIENTZIA

645417665

XABIER Usurbil



FINKA ADMINISTRATZAILEA

AHOLKULARITZA ZERBITZUA

INMOBILIARIA

ASEGURUAK

943 573 693

Eusko Gudari 35, ORIO

G Auto Guria s.l

Auto Konponketa
Pre I.T.V.
Marka guztiak

943 363 298

Zelai-haundi 11, Osinalde Pol. USURBIL



**ASEGURU ARTEKARITZA
ETA GESTORIA ZERBITZUA**

Telf: 943 37 11 18 Mugikorra: 672 23 83 01

pikabea@pikabeaaseguruak.com

Uzturre Plaza, 8 Lasarte-Oria J-0078EUS



AZAROAREN 20TIK 24RA

ZURE EROSKETEKIN 700€ OPARI-TXEKEETAN

Azaroaren 20tik 24ra gure lokaletan egiten dituzun erosketen tiketak aurkeztu itzazu Bezeroen Arreta Gunean, gutxienez 10€-ko gastua eginik, eta Urbilen kontsumitzeko 200€-ko opari txartel baten eta 10€-ko 50 opari-txekeen zozketan parte hartuko duzu.

Irabazleen komunikazioa: 2018/11/28an www.urbil.es-en bidez egingo da. Bezeroen Arreta Guneako ordutegia: astelehenetik ostiralera 11:00-14:00 eta 16:00-20:30. Larunbatetan, aldiz, 21:00ak arte. Informazio guztia eta promozioa oinarriak www.urbil.es-en dituzu eskura.